

BESTE BIZITZA BAT ZURE ARROPARAKO

ULMAREN KONPROMISO BERRIA MUNDU JASANGARRIAGO BATERANTZ

2023ko apirila
57



4



Albisteak eta gaurkotasuna

—
ULMA Agricolaren bisita komertziala Asiako kontinentean

07

—
Txileko merkatuari tenperatura hartzen

09



—
Inoxtrucken soluzioek interes handia sortu dute Atlantako IPPE azokan

11

—
ULMA Packagingek plaka fotovoltaikoak instalatu ditu bere ekoizpen zentroetan

13

16



Iraunkortasuna gara

—
Beste bizitza bat zure arroparako.
ULMAren konpromiso berria mundu jasangarriago baterantz

16

18



Erreportajea

—
ULMAk pertsona zaugarrientzako begietako patologien behaketa eta diagnostikoa egiteko ekipamendu lagungarriak eman dizkio "Abre sus ojos" GKEari

18

—
Zure osasuna aztertzen. Odol eta txiza analisiak ULMA Taldean

22

25



Agenda eta iradokizunak

—
Erretiroak
Urtarrilak 1 – Apirilak 30

25

—
ULMAren Marka Enplegatzailea

26



ARGITARATZAILEA: Grupo ULMA S. Coop. Bº Garagaltza 51 20560 OÑATI, T 943 25 03 00
ZUZENDARITZA: Carlos Sarabia | csarabia@ulma.com
EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA: Oihane Etxebarria, Aitor Castro, Elena Goirizelaia, Maria Sendin, Sara Soria, Janire Laconcha, Nerea Burgoa, Itsaso Letamendi eta Carlos Sarabia
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Igone Basterra | ibasterra@ulma.com



Paper ekologikoa

2

3

EMAKUMEEN ESKUBIDEEN DEFENTSAN AURRERA

M8ko ospakizunekin bat egin dugu ULMA n aurten ere. ULMA n dihardugunok **lanbide bizitzan berdintasunaren aldeko apustua egiten dugu, eta, horretarako, guztion gaitasunak eta konpetentziak berdintasunean garatzen laguntzen dugu.** Horregatik, urtero ekimen desberdin batekin ospatzen dugu M8a.

Aurten ere, ULMA n prestatu gara ariketa sozial horretan murgildu eta berdintasunaren gaineko kanpainan beste pauso bat emateko, gure negozio guztietan propio diseinatutako lanyard zintak banatuz, gizonen eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna erreibindikatu nahi duten pertsona guztiengana iristea helburu.

Argazki sorta honek erakusten duenez, ULMA n berdintasunaren alde egiten dugu!



ULMA PACKAGING



ULMA PACKAGINGEK "PUNTZOI MATRIZE" EBAKETA SISTEMA BERRIA MERKATURATU DU, EBAKETA PERIMETRAL AKASGABEA DUTEN ONTZIAK BEHAR DITUZTEN MERKATUETARAKO.



Sistema berri hau ULMA n termoformazio soluzioen lerroan kokatzen da, eta negozio lerro honen ekoizpen manager den Iker Zabaletaren hitzetan, "ebaketa ahalmen handiagoa ematen du, bereziki ebaketa pertsonalizatua eta perimetro osoan akasgabea behar duten ontzientzat pentsatua".

Sistema hau bereziki egokia da **medikuntza eta farmazia sektorean erabiltzen diren ontzi zurruntarako**, non ebaketa perimetroak ez duen izan behar azken erabiltzailea kaltetu dezakeen inolako ertzik.

Iker Zabaletak gaineratu duenez, sistema honi esker,

"ebaketa progresiboa denez eta soilik filmarekiko marruskaduraz higatzen denez, 3 milioi ziklora irits daiteke berriro zorrotzu baino lehen, eta, gainera, 5 aldiraino egokitu daiteke; beraz, 15 milioi ziklo inguruko bizitza erabilgarria du", eta topera ebakitzeko ohiko erabileran, aldiz, hortza milioi erdi ziklora baino ezin daiteke iritsi. Beraz, sistema mantentzeko kostua askoz ere txikiagoa da konbentzionalaren aldean.

ULMA VASCO DA GAMA ZUBI TIRANTEDUNAREN KONPONKETAN

ULMA CONSTRUCTION



Vasco da Gama zubi tiranteduna da, Tajo ibaiaren gainean dago, eta Alcocheteko eta Lisboako udalerrak lotzen ditu, Portugalen. 17,3 km baino gehiagoko luzera du, eta Europar Batasuneko zubirik luzeena da.

ULMA k egin duena izan da **pilonoaren goiko aldean tiranteetara iristeko sistemak sortzea, eta taularen behealderako sarbide bat**, trafiko

istripu baten ondorioz kaltetutako tirante batzuk ordeztu ahal izateko. Gainera, **langileak prestatzeaz, ikuskapenak egiteaz eta aldamioa muntatzeaz eta desmuntatzeaz arduratu da.**

ULMA ko ingeniari taldeak soluzioa BRIO norabide anitzeko aldamioarekin ematea planteatu du. Muntaketa lan horiek izan zitzaketen arriskuen prebentzio eta jarraipen egokia egiteko, ekipo espezializatu

batek egin zituen lanak, BRIO aldamioa segurtasun osoz behar bezala aplikatzen zela bermatzeko.



ENTREPINARESEK ULMA HANDLING SYSTEMSEN JARRI DU KONFIANTZA BERRIRO ERE

Entrepinares Valladolideko nekazaritza elikagaien sektoreko familia enpresa bat da, gazta eta esnekiak fabrikatzen dituena, eta berriro ere ULMA Handling Systemsen jarri du konfiantza, Valladolideko enpresaren **ekoizpen plantaren 6. hazkunde fasea gauzatzeko.**

Ontze ganberaren edukiera eta, era berean, iraulketa estazioaren edukiera handitu behar direnez, beste bi korridore instalatu behar dira, transjasogailu kurboarekin, dauden bi ontze ganberetako bakoitzean. Horrenbestez, **Entrepinaresek 3.892 paleteraino**



handituko du edukiera ganbera berri bakoitzean.

Zabaltze berri horrek, halaber, garraio sistema bat edukiko du

Sarrera-Irteera gunetik iraulketa estazio berri baterantz, bai eta igogailu bat ere, ebaketa eta ontziratzeko gunearekin konektatuko duena.

ULMA HANDLING SYSTEMS

NEMAK ENPRESAK KOSTUAK AURREZTU DITU ETA INGURUMEN INPAKTUA MURRIZTU DU ULMARI ESKER

Euskadiko ekonomia zirkularrarekin eta jasangarritasunarekin konprometitu dagoen ULMA Manutentzio Zerbitzuak **bezero historiko baten orga jasotzaileen parkea berritu du oraintsu. Bezero hori Nemak Spain da**, automobilgintza sektorerako goi teknologiako aluminio osagaien ekoizpenean espezializatutako enpresa.

Berrikuntza horren barruan, **litiozko ioien bateriak dituzten 11 orga elektriko berri eta berregokitutako 10 orga sartzen dira**, denak ere ULMAren UDALOG® gailuarekin hornituak.

Kostuak murrizteaz eta produktibitatea, segurtasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeaz gain, **berregokitzeak %40 handitzen du makinaren bizitza erabilgarria; halaber, ingurumen inpaktua murrizten du:** urtean 362 kg CO₂ eta 5,319 mol H⁺.



Ohiko berun azidozko bateriak litiozko ioi bateriekin ordezkatzeak berekin dakar iraunkortasuna handitzea, ordezkapen eta mantentze kostuak murriztea, segurtasun handiagoa eta ingurumen inpaktu txikiagoa.

ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

TXIRRINDULARITZA DENBORALDI BERRIA ULMAK BABESTUTAKO ALOÑA MENDIKO KADETE ETA GAZTE MAILAKO TALDEENTZAT



Iragan otsailean aurkeztu ziren aurtengo Aloña Mendiko kadete eta gazte mailako taldeak. Talde horiek, ULMAK babestuta, txirrindularitza denboraldi berri bati ekingo diote, eta horretarako ULMAREN babes irmoa daukate, datozen 4 denboraldietarako sinatu berri den lankidetzaren bidez berretsita. Berritasun gisa, aurtengo txirrindularien ekipazioak aldaketa handiak izan ditu aurrekoaren aldean; izan ere, maillota zuria da, marra beltz eta gorriekin, eta ULMA marka ondo ikusten da bularrean, bizkarrean eta mahuketan. Kulotea erabat beltza da, eta marra gorri fin bat du praken behealdean. **ZORTE ON, TALDEAK!**

ULMA TALDEA

INDARTSUAGO EGITEN GAITUZTEN ALIANTZAK



ULMA EMBEDDED SOLUTIONSEK LANKIDETZA HITZARMEN BAT SINATU DU ARDUINO ENPRESAREKIN, ARDUINO PRO ENPRESAREN LEHEN PARTNER NAZIONALA IZATEKO AUKERA EMATEN DIONA.

Arduino enpresarekin lotutako hitzarmenaren ondorioz, ULMA haren teknologian oinarritutako soluzioak diseinatu eta bezeroetan ezartzeaz arduratuko da.

Sortu zenetik, ULMA Embedded Solutionsek **partner sare sendoa osatu du hainbat enpresa, talde eta elkarterekin, ezagutza zabaldu, gaitasunak hobetu eta,**

ondorioz, bere bezeroei punta-puntako soluzioak eskaini ahal izateko. Gaur egun, nazioarteko 10 enpresa baino gehiagorekin kolaboratzen du, eta haien teknologietan espezializatutako taldeak ditu. Gainera, modu aktiboan parte hartzen du GAIA, INCOSE eta halako elkarteekin, hainbat arlotan duen esperientzia partekatzea helburu.

GAIA (Euskadiko Ezagutza eta Teknologia Aplikatuaren Industrien Elkarte) zuzendaritza batzordeko kide gisa parte hartzen du eta IoT arloan laguntzen du. Eta INCOSEn (International Council on Systems Engineering), erakundeko bazkide gisa, sistemen ingeniarietan espezializatutako foroetan bere ezagutza jarriz, joan den otsailaren 16an Madrilan egin zen bezala.

ULMA AGRICOLAREN BISITA KOMERTZIALA ASIako KONTINENTEAN

ULMAko nekazaritzako profesionalen talde bat Japoniara joan da **bezeroen beharrak zein diren jakiteko eta merkatuaren soluzio berrietan aurrera egiteko.**

Urtarrilaren 16tik 20ra bitartean, ULMako talde teknikoa Japoniara joan zen markak herrialdean landu dituen proiektuen egoera ezagutzera. Asiako herrialdera egindako bisitaren helburua da **merkataritza harremanak sustatzea eta bezeroen jarduera hobeto ezagutzea.**

Egonaldian zehar, Tokioko instalazioak bisitatu zituzten (7.700 m² baino gehiago) hazkuntzaren eta uztaren prozesu espezifikoak ezagutzeko. Gainera, ULMako



ULMA AGRICOLA

profesionalen taldeak hizketaldi laburrak izan zituen bezeroekin eta haien kezkek ezagutu ahal izan zituen, etorkizuneko beharrei aurrea hartu eta soluzio berriei heltzeko.

ULMAREN KOMPAQDRAIN KANALAK MONTMELOKO 1 FORMULAKO ZIRKUITUAN

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



ULMA Architectural Solutionsek Kompaqdrain kanal monolitikoak instalatu ditu Montmeloko 1 Formulako zirkuituaren inguruan. Kanal horiek trinkoagoak dira, sareta eta kanala pieza bakar batean integratuta daudelako, eta segurtasun eta egonkortasun handiagoa ematen dute.

Inguru horretan kargatuta doazen kamioien zirkulazioa etengabea dela kontuan hartuta, hiru izan dira Circuit Barcelona-Catalunya zirkuituak ULMAREN soluzioaren aldeko apustua egiteko arrazoiak:

1. Kompaqdrain kanalen max-flow sistema eskusiboari esker, **handitu egiten dira uraren abiadura eta drainatze ahalmena.**
2. Kanalen gainazal irristagaitz alderantzikatuaren diseinuak **eragotzi egiten ditu bibrazioak bertatik pasatzen diren ibilgailuetan.**
3. Erabiltzen den materiala (hormigoi polimeroa) **konpresioarekiko erresistentzia handienetakoa duen materialetako bat da.**

Entrega epeak oso zorrotzak ziren arren -1 Formulako munduko txapelketak hastear zeuden- ULMAk instalazioa aurreikusitako denboran egitea lortu zuen.

ULMA HANDLING SYSTEMSEN BAGGAGE PROIEKTU BERRIA PUNTA CANAN

Punta Canako aireportuak -Latinoamerikako nazioarteko hamar aireportu nagusietakoa eta Karibeko bigarren aireportu jendetsuena- ULMA Handling Systemsen jarri du konfiantza osteria ere, **hiru ikuskapen lerro berriren hornidura esleituta.**

Iaz, ikuskapen lerro bat hornitzeko lehen kontratua sinatu zen, aireportuaren A terminalak dituen 4 fakturazio guneetako batean Estandar 3 EDS bat txertatuta. Ekipoen instalazioa martxoan hasiko da.

Proiektu berriaren irismenean B terminaleko gainerako 3 ikuskapen lerroak hornitzea sartzen da.

Aireportuko aire trafikoa asko handitu da -pandemia aurreko mailara iritsi da- eta, horren ondorioz, **ekipajeak tratatzeko sistemetan epe laburreko hainbat inbertsio** onartu dira, hala nola iritsiera



ULMA HANDLING SYSTEMS

sistema birmoldatzea, irteera sistema 12 mostradoretan zabaltzea, ikuskapen lerro berri bat, hegaldien prestakuntzarako karrusel bat... eta ULMA posizio pribilegiatuan dago halako proiektuetarako.

Gainera, epe ertainera terminal berri bat eraikitzeko asmoa dago.

ULMA FORGED SOLUTIONS VALVEWORLD 2022 AZOKAN

ULMA Forged Solutionsek balbulei buruzko Valveworld azokan parte hartu du, joan den azaroaren 29tik izako abenduaren 1era, Alemaniako Dusseldorf hirian. ULMA laugarren aldiz egon zen bi urtean behingo ekitaldi honetan, 27 m²-ko stand batekin, bertaratutako pertsona guztiei harrera ona egiteko.

Covid19aren ondorioz, Valveworld 2022k 2018ko azken ekitaldian baino enpresa gutxiagorekin ireki zituen ateak, 2020an azoka bertan behera geratu ondoren. Azpimarratzekoa da **ULMAREN standean jasotako bisitari profesionalen kalitate handia**, nahiz eta bisitari guztien kopurua aurreko edizioetakoa baino txikiagoa izan.

Azokak iraun zuen hiru egunetan, 46 bisitari hurbildu ziren ULMAREN standera, eta, ohiko bezeroak alde batera utzita, **bezero potentzialen bisita garrantzitsuak** ere jaso ziren. Bezero posible horietako askok espresuki jo zuten ULMAREN merkataritza gunera informazio bila. Horietako askorekin sinatu da konfidentzialtasuna bermatzen duen dokumentua (NDA), eta dagoeneko hasi dira lehen eskaintza eskaerak iristen.



ULMA FORGED SOLUTIONS

TXILEKO MERKATUARI TENPERATURA HARTZEN

ULMA CONVEYOR COMPONENTS 2023AN HASIKO DA ARRABOLAK MONITORIZATZEKO SISTEMA BAT INSTALATZEN TXILEKO IPARRALDEKO MEATEGI GARRANTZITSUENETAKO BATEAN.

Antofagasta eskualdean, ingurumen eta lan baldintzak hain zorrotzak diren honetan, ULMAREN GAZIMO sistemak **soluzio simple eta ergonomiko bat eskaintzen dio meatzaritzako lanik gogaikarrietako bati: mantentze lanari.**

Sistema hori ULMA Embedded Solutionekin lankidetzan garatu da, eta **denbora errealean**



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

monitorizatzen du garraigailu baten arrabolen egoera, edozein lekutatik eta edozein unetan. Soluzio berri honek aukera garrantzitsu bat ireki lezake

etorkizunean Txileko meatzaritzan, ekoizpen lerroan ustekabeko geldialdiak eragin ditzaketen arrisku potentzialak identifikatzeko eta jakinarazteko gai baita.

ULMAK ERRONKA BERRI BAT PLANTEATZEN DIZU: 30 EGUN BIZIKLETAZ

Dagoeneko apirilean gaude eta urtero bezala ULMAk **Ekokilometro programaren "30 egun bizikletaz"** erronka planteatzen dizu. Urteik urtera ULMAko gero eta pertsona gehiagok hartzen dute parte erronka honetan. Helburua da hilebe batez lanera bizikletaz joatea, horrela CO₂ emisioa murrizten baita, eta osasuna hobetzen.

Eman izena! Sartu www.ekokilometro.ulma.com webgunean. Deskargatu Ciclogreenen doako app-a zure mugikorrean eta erregistra zaitez zure negozioarekin **ulmawin** kodea erabiliz.

Aurten, berritasun gisa, negozioen arteko konparazio datuak eskaintzen ditu aplikazioak. Eskuineko grafikoan, iazko 30 egun bizikletaz erronkaren konparatiba ikus daiteke. Parte hartzera eta zuen negozioaren emaitzak hobetzera animatzen zaituztegu, erronka hau ULMAko negozioen arteko lehiaketa bihurtuz.

Jo eta ke, jasangarritasunaren alde!

ULMA NEGOZIOEN RANKINGA "30 EGUN BIZIKLETAZ" 2022KO ERRONKAN

ULMA PACKAGING	5068km	1267kg CO ₂	873€
ULMA FORGED SOLUTIONS	1175km	293kg CO ₂	216€
ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS	1120km	280kg CO ₂	212€
ULMA CONSTRUCTION	795km	198kg CO ₂	139€
ULMA HANDLING SYSTEMS	337km	84kg CO ₂	63€
ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK	142km	35kg CO ₂	24€
ULMA AGRÍCOLA	44km	11kg CO ₂	7€
ULMA EMBEDDED SOLUTIONS	0km	0kg CO ₂	0€
ULMA CONVEYOR COMPONENTS	0km	0kg CO ₂	0€

ULMA TALDEA



AKABERA ARKITEKTONIKOAK BELO HORIZONTEKO ERDIALDEAN

'CRISTO REI KATEDRALA' ERAIKITZEN ARI DIRA BRASILEKO BELO HORIZONTEAN, ETA, AMAITZEN DUTENEAN, ELIZA KATOLIKOAREN HIRIKO EGOITZA BERRIA IZANGO DA.

Oscar Niemeyer arkitekto brasildarrak 2006 eta 2010 artean diseinatutako azken proiektuetako bat erreferentziatzeko eraikin bat izango da hirian.

Elizbarrutiak berak duen ingeniari-taldearekin egiten ari da obra garrantzitsu hau, eta ULMAk bertan parte hartu du, 2013an hasi zenetik. **Proiektu berezi eta konplexu bat, enkofratu, zinbria eta aldamiu sistemen gainean daukagun know-how osoa erabiltzen ari**



ULMA CONSTRUCTION

dena, bai ageriko hormigoizko hormetarako sistemak, proiektuko egitura asko horrelako hormak dira-eta, bai zutabeetarako enkofratuak, lauza nerbidunak eta sarbide aldamiok.

Konfiantzan oinarritutako harremana, lana arrakastaz eta bezeroak eskatzen dituen epeetan gauzatzea dakarrena.

LOS CARMENES BIZITEGI ERAIKINA BIRGAITZEA (GANDIA), NEURRIRA EGINDAKO PIEZA AURREFABRIKATUEKIN



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Architectural Solutionsek Gandian dagoen Los Carmenes bizitegi eraikina birgaitzeko proiektuan parte hartu du.

Birgaitze hori egiteko arrazoi nagusia zen aurreko piezak oso hondatuta eta egoera txarrean zeudela, eta ULMAk **bi motatako**

piezak fabrikatu eta hornitu ditu: forjatuaren aurrealdeak eta sabai faltua estaltzeko janbak.

ULMAren aurrefabrikatu arkitektonikoak **formetan duten moldakortasunagatik** nabarmentzen dira. Moldeen bidez fabrikatzen dira, eta, beraz,

mota guztietako tamainak eta formak egin daitezke. Materialaren moldakortasun handiari esker, hainbat elementu konpondu ahal izan ditugu obran: gune kurbatuak eta sabai faltua.

INOXTRUCKEN SOLUZIOEK INTERES HANDIA SORTU DUTE ATLANTAKO IPPE AZOKAN

Inoxtruck Atlantan urtero egiten den "International Production & Processing Expo" (IPPE) erakusketan izan da, munduan haztegioko hegazti, haragi eta elikadura industria garrantzirik handiena duen ekitaldian.

Inoxtruck bigarren aldiz joan da IPPE azokara, Estatu Batuetan duen Stone Enterprises banatzailearen eskutik. Azokaren balorazioa bikaina izan da, **Inoxtrucken soluzio higienizagarriei buruzko interes handia** sortu baita, eta, pandemiaren aurreko edizioarekin alderatuta, **bisita kopuru handiagoa** izan da, Estatu Batuetako, Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako bezero garrantzitsuak barne.



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

HONGSA PROIEKTU BERRIA LAOSEN

Thailandiako Sahakol eraikuntza enpresak Heavy Duty arrabolen (HDC) eskari bat adjudikatu dio ULMA Conveyor Componentsi, Hongsa (HPC) konpainiaren meatze eta zentral termikoko guneko esterilak kudeatzeko 2. lerroa zabaltzeko. Laoseko zentral termikorik handiena da. Gune hori Xayaboury probintzian dago, Thailandiako mugatik gertu.

Arrabolak berariaz **diseinatu dira karga baldintza handiak (18.000 tona orduko), bandako abiadura (5.2 m/s) eta eremu horretako euri, bero eta hezetasun baldintza gogorak jasateko.**



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

BESTE TUNEL BAT AIRE ZABALEAN ULMAREKIN



ULMA CONSTRUCTION

S3 AUTOBIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN BARRUAN, 320 BAT M LUZE IZANGO DUEN ERREPIDEKO TUNELA (TS-32) SARTZEN DA, LEGNIKA-LUBAWKA ERREPIDE ZATIAN, GOSTKOWETIK GERTU (POLONIA).

Egiturak bi galeria ditu, eta aire zabaleko tunelak eraikitze metodoarekin egin da. Galeria bakoitzak 3,5 m-ko zabalerako bi errei izango ditu, baita larrialdietarako 2,5 m-ko zabalerako bide bat ere.

Ganga aire zabaleko tuneletarako MK enkofratze orgarekin egin da. Hura diseinatzean, kontuan hartu da tunelaren geometriari egokitzeko gaitasuna eta zimenduen gainean translazioa egiteko aukera. **Horrekin, errodadura**

erreietarako zimenduak jartzeko sistema gehigarri bat ezartzearekin lotutako gailuak saihestu dira. Gainera, obran bertan makineriarik ez erabiltzeko, enkofratze orgaren zati bat aurrez muntatu da ULMAren instalazioetan.

ULMAko teknikariak obran izan ziren une oro, antzeko egituretan esperientzia baitute eta sistema hidraulikoei buruzko ezagutza zabalak baitituzte.

YOGA, HIPOPRESIBO ETA PILATES IKASTARO PRESENTZIALAK ULMAN BERRIRO

Urtea berrikuntza askorekin hasi da, eta ULMAko osasun zerbitzuak bultzatutako "Izan Osasuntsu" programa indartsu hasi da. **Yoga, hipopresibo eta pilates eskola presentzialak itzuli dira!**

ULMAko kide guztiek eman ahal izan zuten izena jardueretan, formulario baten bidez. Erantzun asko izan ziren eta, jarduera bakoitzerako lekuak mugatuak zirela eta, izena eman zuten pertsonak zozketan sartu ziren dauden plazak betetzeko.

2023an ikastaroak hiru hilean behin izango dira eta, horrela, izena eman zuten pertsona guztiei aukera emango zaie. Oñatin astearte eta ostegunetan yoga eskolak eta asteazkenetan hipopresiboei buruzkoak emango dira, eta Legazpin asteazkenetan pilatesekoak.



ULMA TALDEA

ULMA PACKAGINGEK PLAKA FOTOVOLTAIKOAK INSTALATU DITU BERE EKOIZPEN ZENTROETAN

Ekonomia zirkularren kontzeptuarekin bat eginda, #ULMAweCare proiektuak mugari garrantzitsuak ezartzen jarraitzen du ULMA Packagingen ingurumen inpaktu murrizteko.

Jasangarritasunean erreferentziazko enpresa izateko helburuarekin, ULMA Packagingek bere makinatan ontziratze materialaren erabilera murriztu du, eta material birziklagarriagoekin ordezkatu du. Gainera, kontratatzen duen **energiaren %100 jatorri berriztagarrikoa** izatea erabaki du, eta hori lehen mugaria da ahalik eta karbono aztarnarik txikiena sortzeko urratsean, Oñatiko ekoizpen zentroetan urtean 1.333 t CO₂ murriztea lortzeko.

Gaur egun, **zelula fotovoltaikoak** instalatu dira **ekoizpen zentroetako**



ULMA PACKAGING

bitan, eta horrek 250kW sortzeko ahalmena dakar. Baina mugari berri hori ez da hor amaitzen, beste bi ekoizpen zentroetan gauza berdina egitea aurreikusten baita, horrela **930kW-era arte hornitzeko ahalmena** izateko.

ULMA TALDEKO EUSKARA PLANAREN ADIERAZLEAK HOBETU DIRA

Azken urteetan egin dugun bezala, aurten ere 2022ko euskara planeko adierazleak atera ditugu.

Guztira 14 adierazle jaso ditugu, ULMA Taldeko 9 negoziotan. Laburbilduz, emaitza hauek jaso dira:

- Euskararen **ULERMEN MAILA: %75etik** gorakoa da, eta 6 negoziotan **%90etik** gorakoa. **Azken bi urteetako emaitzak alderatuz** ulermen maila **hobetu** egin da, eta horrek euskaraz lan egiteko aukera ematen digu.
- **LANGILE BERRIEN LANPOSTUETAKO HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN** betetze maila **7 negoziotan %100ekoa** da.
- **AHOZKO ERABILERA:** eremu informalean **poliki-poliki hobetzen** ari bagara ere, 4 negoziotan erabilera jaitsi egin da.
- **HITZALDI INFORMATIBOETAN ETA BATZAR NAGUSIETAN** urtetik urtera euskararen erabilera **areagotzen** ari da. Emaitza hori lortzen lagundu du adibidez, aldibereko itzulpenak erabiltzea, negoziotako gerentee bideoak euskaraz egitea, etab.



ULMA TALDEA

ULMA Taldeko eta Negoziotako Euskara Batzordeetan datozen asteetan emaitzak aztertu eta ekintza planak zehaztuko dira.

EUROPASTRYRAKO INSTALAZIOAREN 1. FASEA SINATU DA

ULMA HANDLING SYSTEMS



ULMA HANDLING SYSTEMSEK ETA EUROPASTRYK -MASA IZOZTUETAN LIDERRA DEN BARTZELONAKO ENPRESA-GARATZEA AURREIKUSITA DITUZTEN BI FASEETAKO 1. FASEA SINATU DUTE.

Proiektuak hainbat fase izango ditu, eta 1. Fasea 2023an zehar landu eta 2024ko bigarren seihilekoan entregatuko da. Oraingo fasean, **kutxen biltegi automatiko bat instalatuko da, 5 transjasogailuz osatutako 4 korridorerekin, eskaerak prestatzeko sistema automatikoarekin batera.**

Gainera, **"Kuka Artic" robotarekin despaletizazioa/paletizazioa egiteko sistema bat zabaltzea** ere sinatu da, -22°C-ra lan egiteko, fardel makinarekin. Robotak funtzio ugari betetzen ditu: despaletizazioa eta erretiluratzeko automatikoa kutxen biltegian birjartzeko, 800x1200 paletetako produktua 1000x1200 paletetara birpaletizatzea, eta delegazio eta esportazioetarako eskaeren geruza lerro osoak prestatzea.

ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK-EK CARLOS PARRA IZENDATU DU ZENTROMANeko GERENTE BERRI

ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK



Carlos Parra izendatu dute ULMA Manutentzio Zerbitzuak negozioarena den Zentroman enpresako gerente berri, Alcobendasen, Madril.

Mantentze lanen arloan esperientzia komertzial zabala du Carlosek, eta lehenago manager arloan aritu da, Still Espainian, eta Madrilgo Ordezkaritzako zuzendaria izan da Carretillas 2000, SL sozietatean. Zentromaneko zuzendaritzan duen helburua izango da **Espainiako merkatu garrantzitsuenetako batean ULMAren presentzia sustatzea eta horren probintzia mugakideetara zabaltzea**, zerbitzuko eta saldu osteko arretako espezialista moduan merkatuan dagoeneko duen ospe sendoari eusteko.

K-SLAT SISTEMA BERRIA FATXADA AIREZTATUETARAKO

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



ULMA Architectural Solutionseko fatxada aireztatuaren lerroak kokapenerako sistema berri bat abiarazi du: K-SLAT: K-SLAT. Sistema berritzailea da, **plaken formatu luzexka** dela eta; 180 x 20 cm-koak dira, eta bertikalean zein horizontalean instalatu daitezke.

K-Slat -"Slat" hitzetik dator, listoia edo xafila- **ezkutuko finkatze**

sistema bat da, torlojurik eta errematxerik gabea, eta, horrela, ez du apurtzen fatxada natural baten estetika uniforme.

Dagoeneko egina dugu gure lehen obra sistema berritzaile horrekin: Oxinburu eraikinaren birgaitzea, erabilera sozial eta kulturaletarako, Arrankudiagan, Bizkaian.

SAR ZAITEZ ULMAREN BIHOTZEAN SHOWROOM IMMERSION-EKIN

ERABILTZAILEEK SHOWROOMAREN ESPERIENTZIA HONETAN, 360°-KO BIRA EGIN AHAL IZANGO DUTE ULMAREN SOLUZIOAK ETA PROIEKTUAK HOBETO EZAGUTZEKO.

Ibilaldi birtual honek showroomaren espazio guztiak **edozein unetan, edonondik eta nahi den erritmoan ezagutzeko aukera** ematen du. Gainera, produktu guztiak oso modu bisualean eskaintzen dute informazio zehatza. Plataforman sartzean, produktuen eta soluzioen informazio osoa guztiz eskuragarria da posizio zirkuluak erabiliz.



Showroom honetan ULMA produktuen portafolio osoa ikusi ahal izango da: horma, zutabe edo lauza enkofratuak, zubiak egiteko soluzioak edo sistema igokariak. Eskaneatu QR kodea eta ikusi zeure kabuz.

FRUTA ETA BARAZKIAK MODU JASANGARRIAN ONTZIRATZEKO AUTOMATIZAZIO EFIZIENTEA 2023 FRUIT LOGISTICAN

ULMA Packagingek Fruit Logistica 2023azokan parte hartu du, munduko erreferentziatzako ekitaldian, ontziratzeko soluzio automatizatu berriekin: jasangarriak, efizienteak eta balio erantsi handikoak. Azoka otsailaren 8tik 10era egin zen, eta ingurumena errespetatzen duten ontziratzeko soluzioak aurkeztu ziren, ontziratzeko teknologien aukera zabala erakutsiz, enbase eta kaxetan sartzeko prozesuak automatizatzen dituztenak, hala nola:

- Flow pack (HFFS)
- Termozigilatzea
- Bertikala (VFFS)

Ekipamendu horiek OEE estandar oso altuak (Overall Equipment Effectiveness), eta TCO balio txikiak (Total Cost of Ownership) lortzeko diseinatu eta fabrikatu daude.

Paper zuntzean edo birziklagarritasun handiko monomaterialetan oinarritutako **ontziratzeko material berriek** aukera ematen dute ekodiseinuaren eta jasangarritasunaren printzipioetan oinarritutako soluzioak erabiltzeko. **Lerroen bukaeran poltsa eta**



erretiluak kaxetan automatiko sartzeko sistemen gama zabalak efizientzia eta produktibitate plusa dakar. Ekipamenduek **HMI** bat dute, 4.0 Industriaren ingurune batean **arduteko eta integrazio lanak errazteko ahalmenak** handitzen dituena.

ULMAREN
KONPROMISO
BERRIA MUNDU
JASANGARRIAGO
BATERANTZ

BESTE BIZITZA BAT ZURE ARROPARAKO

ULMAk arropa gaika biltzen laguntzeko ekimen berri bat jarri du abian, irabazi asmorik gabeko hainbat erakunderekin batera (Emaus eta Kooperera), arropa horiek berrerabiltzeko portzentajeak handitu ahal izateko.



Berrerabiltzeak hondakinak sortzea ekiditea eta finituak diren lehengaiak erabiltzea ekiditea dakar, eta ekintza horiekin klima aldaketa geldiarazten da.

Oñati, Lazkao, Legazpi eta Otxandion arropa biltzeko edukiontzia jarri dira, ULMAn lan egiten duten pertsonen eroso gerta dakien erailtzen ez dituzten arropak lanera joaten direnean eraman eta edukiontzia horietan uztea, arropa horri bigarren aukera eman ahal izateko eta jantziak berrerabiltzeko, ez birziklatzeko.

sailkatzen dira, produktuaren eta egoeraren arabera. Egoera onean daudenak, erreskatatu, garbitu eta berriz erabiltzeko prestatzen dira, artikulu berri bihurtuta berrerabiltzeko, bestela zabortege batera kondentatuta leudeke eta. Berrerabiltzea ezinezkoa den kasuetan, kudeatzaile baimenduetara bideratzen dira.

zaugarrienei lan merkatuan sartzeko aukera emanez, eta, aldi berean, berrerabiltzeko objektuak berreskuratuz, ingurumena babesteko. Irungo eguneko zentroko kideak arduratu dira ULMAn jarritako edukiontzia koloretako biniloekin apaintzeaz eta pertsonalizatzeaz.

Jantziak hilean behin jasotzen dira edukiontzietatik eta Emausen Ekocenterrera eta Kooperaren berrerabilera plantetara eramaten dira. Leku horietan jasotako jantziak

Emausek eta Kooperak hainbat programa eta zerbitzu dituzte arrisku edo bazterketa sozialeko egoeran egon daitezkeen pertsonen beharrei erantzuteko. Pertsona

ULMAn
arropa biltzeko
11
EDUKIONTZIAK
jarri dira

OÑATI	GARIBAI, 9	ULMA CONSTRUCTION, ULMA AGRÍCOLA
	GARIBAI, 28	ULMA PACKAGING
	ZUBILLAGA, 3	ULMA FORGED SOLUTIONS
	ZUBILLAGA, 89	ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS
	GARAGALTA, 50	ULMA HANDLING SYSTEMS
OTXANDIO	GARAGALTA, 51	ULMA EMBEDDED SOLUTIONS, GRUPO ULMA, UPTC
	OTADUI ZUHAIZTIA, 8	ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK
	ZELAIETA, Z/G	ULMA CONVEYOR COMPONENTS, ULMA HANDLING SYSTEMS
LAZKAO	ZUBIERREKA, 52	ULMA FORGED SOLUTIONS
LEGAZPI	OLABERRI AUZOA, 11	ULMA PACKAGING

MARIAN PARGA.
emaús

"ULMArekin dugun lankidetzaren irungo "eguneko zentrorra" eta Emausek Irunen duen "gizarteratze enpresara" bideratu da. Talde horietako kideek edukiontzia zaharrak berrerabili dituzte, eraberrituz, proiektuaren arretagunea jasangarritasunean jarrita. ULMari eskerrak ematen dizkiogu Emausengan konfiantza jartzeagatik, Jasangarritasuna eta Gipuzkoako Garapen Soziala elkartuta"



LANDER DÍAZ DE GEREÑU
ULMA Taldeko lehendakaria

KIKE SOT.
Kooperera

"Aldez aurretik eskertzen dugu zuen arropa ematea, Kooperarentzat enplegu inklusiboa sortzeko eta planeta zaintzeko lehengai bihurtzen baita"

IGOR PUJANA.



"Bai ideia ona ULMarena, arropa edukiontzia bat gure esku jartzea. Etxean garbiketa egitera animatu nintzen eta gauza asko atera ziren murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko. Eta beste bat gehiago gehitu nahi nuke: Ongi sentitzea. Badakizulako ekintza txiki horrekin baztertuta dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen laguntzen duzula, baita ingurumenean ere"

"Ehungintza kutsadura-iturri garrantzitsua da gure gizartean. Horregatik, ULMak gure etxetan dugun arropa birziklatzeko eta berrerabiltzeko erraztasunak eman nahi ditu. Horretarako, Emaus eta Kooperaren laguntza paregabea dugu. Jar dezagun denok gure aletxo!"



ULMAk pertsona zaurgarrientzako begietako patologien behaketa eta diagnostikoa egiteko ekipamendu lagungarriak eman dizkio "Abre sus ojos" GKEari



—
Irudian, ezkerretik eskuinera

DR. IÑIGO CORCOSTEGI
Miranza Clinica Begoña

ERNESTO MARCO
Abre Sus Ojos

DRA. ITXASO HERRERA
Miranza Clinica Begoña

ANTONIO GARCÍA
Abre Sus Ojos

IBON CALVO
ULMA Taldea

JOSETXO DE FRUTOS
Medical Technologies

Joan den otsailaren 22an, ULMA Taldeko lehendakariorde Ibon Calvo Bilboko Miranza Clinica Begoña klinikara joan zen, Iñigo Corcostegui eta Itxaso Herrera doktoreek gonbidatuta, ULMA ekipamendu oftalmologikoak emateko "Abre sus Ojos" GKEko lehendakari Antonio Garciari.



>>

Ibon Calvo, ULMA Taldeko lehendakariordea, "Abre sus Ojos" GKEko lehendakari Antonio Garciarekin

Joan den urrian Medical Technologiesek hainbat ekipo oftalmologiko laga zituen "Abre sus Ojos" GKEak -Ven y Verás, Toledo 2022- izenarekin martxan jarritako ekimenerako. Ekimen horren emaitza onek eragin dute ULMAk dohaintza hori egitea erabakitzea.

Dohaintzan emandako ekipamendua "Abre sus Ojos" GKEak urtero gauzatzen dituen ekimenetan erabiliko da, Espainian eta Afrikan; zehazki, 2023an, Bilbon, Ugandan, Malawin eta Kenyan. Erraz erabiltzen diren ekipamendu oftalmologikoak dira, konektagarriak, hainbat ingurunetara erraz eraman daitezke eta pertsona zaurgarrienen begietako patologiak goiz identifikatzeko balioko dute. Jatorrian bertan diagnostikatu eta tratatu ahal izango dira.

Dohaintza honekin ULMAk bere hondar aletxoak ematen du pertsona zaurgarrirei begietako patologikoak goiz identifikatzen laguntzeko. Emandako teknologia ULMA Taldeko Medical Technologies atalak garatu du.

Medical Technologiesek Adimen Artifizialean oinarritutako diagnostikorako eta datuen analisirako soluzioak garatzen ditu, arreta medikoaren kalitatea eta irisgarritasuna eraldatzeko misioarekin. Horrez gain, azpiegitura digitalak eta osasun dispositiboak eskaintzen ditu profesional medikoen eta osasun sistemen beharrei erantzun integrala emateko, pertsonen osasunaren prebentzioan eragin positiboa lortzeko.

<<
ULMAk emandako ekipamendu oftalmologikoa





IBON CALVO.
ULMA Taldeko lehendakariordea

"Oso pozik gaude "Abre Sus Ojos" GKEarekin ekimen zoragarri honetan lankidetzan aritu eta gure ULMA teknologia eman ahal izateagatik, pertsona eta kolektibo behartsuei optometria eta oftalmologia zerbitzuak eskaini ahal izateko. Lankidetzan aritzeko aukera dugun horrelako proiektu sozialak ezin hobeto lotzen dira gure ULMA Fundazioaren ikuspegi eta printzipioekin.

Gainera, Medical Technologiesek garatutako teknologiarekin eta aparatuekin lankidetzan arituko garela gehitu nahi nuke, zeina hainbeste ahalegin eta ilusioarekin garatu dugun gure sustapen zentroaren etorkizuneko proiektu bat den. ULMAtik horrelako proiektu eraldatzaileak bultzatzen eta babesten jarraituko dugu".



JOSETXO DE FRUTOS.
Medical Technologieseko gerentea

"ULMA osasunaren arloan soluzio teknologiko berritzaileak garatzeko konpromisoa dugu, gaur egun gutxi batzuen eskura dauden ekipamenduak eta teknikak optimizatu eta orokortu ahal izateko. Gure helburua munduko edozein posizio edo lekutan dagoen edonork kalitatezko osasun arreta jaso ahal izatea ahalbidetzea da".



ANTONIO GARCÍA.
"Abre sus Ojos" GKEko lehendakaria

"Lehenik eta behin, eskerrak eman behar dizkizuegu zuen ekarpenagatik, eta ziur egon zaitezke ekarpen horri etekina aterako diogula, bai hemen, bai Malawin, Ugandan eta Kenyan. "Abre sus Ojos" GKEarentzat gertakari handia da ULMAren magnitude eta ospe handiko enpresa batek gure ekintzak babestea, azken belaunaldiko tresnak gure eskura jarriz, hain teknologia aurreratuarekin. Ziur gaude aurki ikusiko dugula ULMA, osasun arloan Adimen Artifiziala aplikatzeko dakarren berrikuntzarekin, erreferentzia handia izango dela lehen mailako arretan. "Abre sus Ojos" erakundetik eskerrak eman nahi dizkiogu ULMA Taldeari gure proiektuetan duen konfiantzagatik eta elkartasunagatik. **ESKERRIK ASKO!**"

"Abre sus Ojos" GKEak 15.000 begi azterketa baino gehiago egin dizkie pertsona zaurgarriei, eta 120 boluntario baino gehiago ditu

Beste behin, ULMAk bere aurpegiarik solidarioena erakutsi du, oraingoan premiarik handienean daudenei begietako patologiak behatzen eta diagnostikatzen lagunduz



Begien azterketa ULMAko teknologia oftalmologikoarekin egin zitzairen pertsonen testigantzak, "Ven y Veras, Toledo 2022" ekimenean.

"Nerea Crespo naiz, "Abre sus Ojos" GKEak ULMAko optometria eta oftalmologiako ekipamenduekin egin zuen azterketa oftalmologikoko kanpainan parte hartu nuen, eta oso esperientzia polita izan zen. Tratua asko gustatu zitzaidan eta eskertzen dizuet. Plazera izan da zuek ezagutzea eta parte hartzea. Besarkada handi bat lagundu duzuen guztioi, zuen lagun Nerearen partetik".

"Zosimo Alvarez naiz. Duela gutxi paraplegikoetara joan nintzen, ikusmenaren eta entzumenaren proba bat egin behar zidatelako "Abre sus Ojos" GKEan. Ondo entzuten nuela baina urrutitik lauso eta gaizki samar ikusten nuela esan zidaten. Betaurreko batzuk ere oparitu zizkidaten. Eskerrik asko guzti-guztioi horregatik".

"Gema Ramos naiz. Ama naizen aldetik, gure seme-alaben bistaren baloraziora joan ahal izatea oso eskertzekoa da. Elkarrekin egoteko orduak izan ziren, enpatia orduak, adeitasuna, hurbiltasuna, konplizitatea eta, batez ere, lasaitasuna. Mila esker "Abre sus Ojos" GKE estimatuari eta oftalmologia ekipamenduekin begiratuz horrekin lankidetzan ari diren guztiei. Bihotz handia duzue. Mila-mila esker".

ZURE OSASUNA AZTERTZEN

ODOL ETA TXIZA ANALISIAK
ULMA TALDEAN

ODOL ETA TXIZA ANALISIEN HELBURUA:

Analisi horiek **oso tresna baliagarria dira diagnostiko medikorako**, gorputzeko organo garrantzitsuenetako batzuen funtzionamenduari buruzko alderdi askoren azterketa egiten baitute.

Gainera, odol eta txiza analisiak gai dira organismoak izan ditzakeen hainbat prozesu islatzeko.

ODOL ANALISIA

Sei dira odol analisi batean aztertzen diren parametro multzo nagusiak:

SERIE ZURIA:

Sistema immunearen desbiderapen posibleak aztertzen ditu (alergiak, koadro birikoak/bakterioak...), osagai bakoitza aztertuz, alterazioa gertatzen bada organismoa zer prozesu mota jasaten ari daitekeen zehazteko. Atal honetan Sedimentazio Globularren Abiadura sartzen da, hanturak eta infekzioak detektatzen dituena.

KOAGULAZIOA:

Organismoak dituen plaketa kantitatea aztertzen du.

PROFIL HEPATIKOA:

Gibelesko hainbat entzima aztertzen dira, organo horretan eragina izan dezaketen prozesuez ohartarazteko, horien artean medikazioa hartzea, hainbat patologia edo ohitura toxikoak, besteak beste.

SERIE GORRIA:

Globulu gorrien kantitatea eta forma, hemoglobina eta hezur muinaren lana aztertzen ditu, besteak beste. Datuak ez badira zuzenak, analisiak pazientearentzat interesgarriak diren beste parametro batzuk gehituz zabaltzen dira. Kolesterol totalaren zifrak handitu egiten dira adinean aurrera egin ahala.

PROFIL LIPIDIKOA:

Odolean dauden kolesterol motak aztertzen ditu, baita dietaren bidez azken orduetan irentsitako triglizeridoak ere (gantzak).

BESTE BATZUK:

Zenbait parametro analizatzen dira: glukosa (metabolismoaren alterazio endokrinoak detektatzeko), azido urikoa (gota tofoa eragiten dute, gota esaten zaiona) edo kreatinina (giltzurrunen funtzioaren adierazlea).



TXIZA ANALISIA

INFEKZIOAK:

Prozesu patologiko bat adierazi dezaketen parametroak aztertzen dituzte (leukozitoak, nitritoak...). Hala ere, oso sentikorrek dira lagina hartzeko prozesuan sortu daitekeen kutsadurekiko.

BESTE BATZUK:

Hainbat emaitza analizatzen dira, hala nola bilirrubina (digestio sistemari lotuta), edo glukosa (alterazio endokrinoak).

GILTZURRUN SISTEMA:

Hematien presentziak, pH-ak, txizaren dentsitateak eta horrelako datuek sistemaren errendimendua aztertzen dute.





EKHINE ZUMETA
Medikua

Urtero kasu berriak detektatzen dira, eta ondoren azterketa zabalagoak egiten zaizkie

ULMA TALDEKO DATUAK

Balio osasungarrietan gaude?


2022ko ekitaldian ULMA Taldeko bi mila pertsona ingururi egindako azken analisietako datuen arabera, **esan daiteke gure erakundearen parametroak osasungarritzat jotzen diren balioetan daudela gehienbat.**

Horren adibidea da, gure kooperatibetako batean aztertutako gibelego profileko GPT entzimaren alterazioaren kasuan, populazioaren %5ek baino ez zituela maila aldatuak aurkeztu.

Hala ere, urtero kasu berriak detektatzen dira, eta ondoren azterketa zabalagoak egiten zaizkie. Horrek patologia goiz detektatzea dakar, detektatu izan ez balira, epe ertain eta luzera arazo bat sortu zezaketenak.

Horregatik, Zerbitzu Medikotik, langileek 2023ko martxotik aurrera ULMAn egingo diren analisietan parte hartzera animatzen dugu.

ULMA CONSTRUCTIONeko adibidea:



2023ko urtarrilean, **"NOLA INTERPRETA DITZAKET NIRE ANALISIEN EMAITZAK?"** informazio hitzaldia egin zen, ULMAko Zerbitzu Medikoak antolatuta. Aurki, Negozio bakoitzeko prestakuntza plataformetan esteka bat sartuko da, gaiari buruzko informazio zabalagoa eskuratu ahal izateko.

Datozen hilabeteetan osasunari lotutako hainbat ekintza eta tailer jarriko dira abian.

Animatu eta parte hartu!

2023

Urtarrilak 1- Apirilak 30

ERRETIROAK

JOSE RAMON VIANA



JAVIER BEITIA



MANOLO MARTINEZ



JON SASIAIN



ENRIQUE GURIDI



HERIBERTO ZUBIA



FCO. JAVIER BALANZATEGUI

eskerrik asko eta gozatu!

Zorionak

Zer egingo dut nire analitika ez badago ondo?

Analisietan eragin dezaketen baina patologia bat aurkitzearekin zerikusirik ez duten hainbat kasuistika daude. **Odol analisi batean pertsona bakoitzak lortutako zifrak aztertu, interpretatu eta behar bezala bideratu behar dira**, elementu horien kontzentrazioek ez dezaten osasunerako arrisku bat ekarri, baina oinarririk ez duen prozesu itogarri bat eragin gabe.

Aipatzekoa da **ULMA Taldeko Zerbitzu Medikoko langileek ULMAn egindako odol eta txiza analisi bakoitzaren azterketa individualizatua egiten dutela, eta pertsonekin harremanetan jartzen direla desbiderapenak sakon aztertu behar badira.**

Dena dela ere, zalantzarik baduzu, joan Zerbitzu Medikora aholkua eskatzeko.





nire aukera da!

ULMA
AUKERATZEN DUT

 **ULMA**